SANTAKRUTZAK LEZO 2022

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA EUS

Urko Etxebeste

Jaien lehortea ahaztu, eta festara! Hilaren 13an hasiko dira ofizialki 2022ko Santakrutz Jaiak. Aurten, azken urteetakoak baino (2019tik aurrerakoak, noski) luzexeagoak izango dira, asteazkenarekin iritsi baita hilaren 14ko Santakrutz Eguna. Hilaren 18ko igandera arte, kaleak bere egiteko txanda gorde dute lezoarrek, jaien barruko ekitaldi den-denak kalekoak baitira. Oarso Bidasoko festa handien artean azkenak izango dira Lezokoak.

Egitarauari so eginez, askotarikoak dira festak bitartean egunez egun izango direnak. Beharbada hilaren 14ko eta hilaren 17ko (larunbata da) egunak izango dira ekitaldi gehien pilatzen dituztenak (ikusi egitarau osoa *oarsoaldea.hitza.eus*-en). Baina egunero-egunero txokoren bat izango dute lezoarrek gustuko duten zerbaitetan murgiltzeko. Santakrutzetako ekitaldien aurrekontu osoa 91.532 eurokoa da, hala dago jasota jaien egitarau ofizialean; 2019an 63.903koa izan zen. ×

TXISTULARIAK

Txistua hartu eta festa girotzeko prest

AITOR ODRIOZOLA ZUBILLAGA

Munttar Txistulari Elkartea, 2021ean Victor Fernandez Otxoari eginiko omenaldian. **HITZA**

Urtero moduan, aurten ere Munttar Txistulari Elkartea arduratuko da santakrutzetan alaitasuna barreiatzeaz. Joseba Etxegoien elkarteko kideak dio «gogotsu» daudela aurtengo jaietarako, bi urtez hala moduzko ekintzak antolatu ondoren. Hortaz, iragan ekaineko mendekosteek «harra baretzeko» balio izan bazieten ere, bertan berrekindako bideari eusteko asmotan dabiltza, «berriro martxa hartzeko gogoz».

Jaietan askotariko ekitaldietan hartzen dute parte. Gehienbat erraldoi eta buruhandiekin aritzen dira kalejiran, baina Santakrutz Eguneko diana ere euren esku joaten da. Txupinazoan ere presente egoten dira, Musika Eskolako bandarekin *Lezoko Herria* ereserkia jotzeko. Ekitaldi horietan elkartzen den jendeari eta giroari dagokionez ere, bada alderik batzuen eta besteen artean, baita «norberaren tenplean» ere: «Desberdina da jaien hasierako saioan jo edo parranda egin ondorengo dianan jo. Gure arteko giroan ere nabaritzen da, baina umoretik heltzen saiatzen gara». Parrandarako tartea era hartzen dute, beraz. Txandakatzeak egiten dituzte: «Bakoitzari ondo datorkionaren arabera antolatzen gara».

Adin tarte heterogeneo xamarra osatzen dute: adinez nagusienak hamarren bat dira, 16 eta 18 urte bitarteko beste batzuk ere badabiltza, eta horiei jaietan Musika Eskolako ikasleak batzen zaizkie. Kalejiretan dozena bat lagun atera ohi dira. Etxegoienen ustez, talde «nahiko zabala» osatzen dute: «Adin tarte bakoitzetik agian ez gara jende asko, baina denon artean jarraipena izateko moduan gaude». Genero aldetik ere oreka dago. Etxegoienek uste du badaudela instrumentu «markatuago» batzuk, baina txistuan ez dela horrelakorik gertatzen.

Doinu berriekin piztuko dute Saldise plaza

AITOR ODRIOZOLA ZUBILLAGA

El Quinto Con Tenedor da topaketan izango den taldeetako bat. **El Quinto Con Tenedor**

Inguruan eragin eta talde hasiberriak ezagutarazteko asmoz, Piztu Lezok Euskal Banden Topaketa antolatu du Santakrutz Jaien barruan. Hilaren 16an izango da, 22:00etan, Karlos Saldise plazan. Azken urte hauetan lehen baino mugimendu gutxiago dagoela antzeman dutelako sortu dute iniziatiba. Aitor Salaberria da antolatzaileetako bat: «Garai batean gazte kuadrilla asko elkartzen ziren eta segituan zeuden taldetxoak jendaurrean jotzeko prest, baina egun ez genuen hori antzematen eta hori bultzatzeko zerbait egitea pentsatu genuen».

Jasotako erantzunarekin gustura daude, baina aitortu du oraindik ere «bertigoa» dagoela gisa honetako egitasmoetara aurkezteko: «Inguruan badaude talde batzuk, baina bat edo beste ez dira aurkeztu». Ildo horretatik, emakumeen presentzia eskasak ere zer pentsatua eman die. Emakumeez osatutako talde bakarra aurkeztu da, eta beste pare bat misto. «Ikusten dugu oraindik oso maskulinizatutako eremua dela, eta horrekin pena dugu. Gizonezkook askoz laxoago jokatzen dugu». Salaberriak argi du hori «puskatu beharreko zerbait» dela, eta jendaurrean aritzeak beldurrak gainditzen lagun dezakeela uste du.

Egindako ahalegina saritu

Sei talde igoko dira Saldise plazako oholtzara, eskualdekoak zein eskualde kanpokoak: Astelehen Goizak (Oiartzun), El Quinto Con Tenedor (Hernani, Donostia, Pasaia), Itzal (Pasai Antxo), Kinada (Lasarte-Oria), Lekoore (Oñati) eta Trilitak (Orereta). Bakoitzak 20 minutu izango ditu «daukan guztia emateko», eta sari bat ere egongo da: 2023ko mendekosteetan kontzertu nagusietan parte hartzea. Salaberria: «Ez dugu lehiakortasuna sustatzeko ezer antolatu nahi, baina egindako ahalegina saritu nahi dugu». Udalak diruz lagundu du ekimena.

PROPOSAMENAK

HITZA

DANBORRADA

Hilaren 13an, 22:45ean. 19:00etako txupinazoaren ondoren, jaien lehen eguneko ekitaldi handiena danborrada da. Lehenik, euren egoitzetatik aterako dira Allerru, Ixkulin, Tiñelu eta Altzateko danborradak, eta 23:45ean elkarteko dira Gurutze Santuaren plazan.

EGITARAU OSOA HEMEN
labur.eus.oarsoagenda

Urko Etxebeste

BAZKARIAK

Hilaren 14an. Santakrutz Eguna da hilaren 14koa, festetako egun handia. Egun horretako egitarauaren barruan ekitaldirik jendetsuena kuadrillen eta belaunaldien arteko bazkaria izango da. Erretiratuek ere otordua dute egun horretan.

Ikerne Zarate

GANADU AZOKA

Hilaren 15ean, 09:30ean. Baserritarren Eguna da hilaren 15ekoa. Ohikoa den bezala, Josetxo Etxandi pilotalekuan eta ondoko probalekuan ganadu azoka egingo dute, baita idi-demak ere. Bazkariak dituzte ondoren baserritarrek.

Carrera

ARTZAIN ETA INUDEAK

Hilaren 18an, 12:00etan. Santakrutzetako azken egunean artzain eta inudeen desfilearekin gozatua hartuko dute lezoarrek. Lopenetik abiatuko dira segizioaren partaide guztiak.